



2023SPLE0008
8.bilera: EZOHIOA 2023/06/17

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2023/08

SESIÓN Nº: 2023/08

EGUNA: 2023/06/17

DÍA: 17/06/2023

HASIERA ORDUA: 12:00

HORA DE INICIO: 12:00

AMAIERA ORDUA: 12:25

HORA DE FINALIZACIÓN: 12:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa

LUGAR: Salón de Plenos de la casa consistorial

BERTARATUAK:

Zinegotzi hautetsiak:

Gilen Garcia Boyra, EH Bildu

Itziar Irizar Beristain, EH Bildu

Antxoka Elorza Altuna, EH Bildu

Oihana Irusta Lazkano, EH Bildu

Aritz Larrañaga Unanue, EH Bildu

Edurne Aristi Careaga, EH Bildu

Alazne Txurruka Allika, EAJ-PNV

Asier Uriain Buenetxea, EAJ-PNV

Monica de Prado Paniagua, EAJ-PNV

Jon Riaño Ojanguren, EAJ-PNV

Anton Garay Berezibar, EAJ-PNV

Ainhoa Urbietta Egaña, EAJ-PNV

Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ASISTENTES:

Concejales y concejales electas:

Gilen Garcia Boyra, EH Bildu

Itziar Irizar Beristain, EH Bildu

Antxoka Elorza Altuna, EH Bildu

Oihana Irusta Lazkano, EH Bildu

Aritz Larrañaga Unanue, EH Bildu

Edurne Aristi Careaga, EH Bildu

Alazne Txurruka Allika, EAJ-PNV

Asier Uriain Buenetxea, EAJ-PNV

Monica de Prado Paniagua, EAJ-PNV

Jon Riaño Ojanguren, EAJ-PNV

Anton Garay Berezibar, EAJ-PNV

Ainhoa Urbietta Egaña, EAJ-PNV

Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra

1.- UDALBATZARRA ERATZEA.

Lehenik eta behin, adineko mahaia eratzten da, Isidro Aristi Oruezabal eta Gilen Garcia Boyra osatuta, adin handieneko eta txikieneko hautetsiak, hurrenez hurren.

1.- CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN.

En primer lugar, se constituye la mesa de edad compuesta por Isidro Aristi Oruezabal y Gilen Garcia Boyra, electos de mayor y menor edad respectivamente.

Adineko mahaiak egiaztatzen ditu Azpeitiko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak emandako kredentzialak, baita hautetsiek aurkeztutako ondasun eta interesen aitortpena eta bateraezintasunei buruzko aitortpena ere.

Jarraian, hautetsiek karguaz jabetzeko legez ezarritako zina edo promesa egiten dute, guztiek, legeak hala behartuta egiten dutela zehaztuz.

Ezarritako izapideak bete ondoren, adineko mahaiak eratzat ematen du 2023-2027 agintaldirako Udalbatza.

2.- ALKATEA AUKERATZEA.

Zerrendaburu diren hiru zinegotzietatik hitza hartzen dute, herri-boto gehien lortu dituen zerrendaburutik hasita.

Gilen Garcia:

«Mila esker eta ongi etorri Osoko Bilkura honetara gerturatu zareten guztioi.

Lau urte igaro dira Debako herriak EH Bildu lehen indarra izateko eta Udal hau gidatzeko mandatua eman zuenetik.

Beste egoera bat genuen arren, alderdi politikoek hartutako erabakiek zerrenda bozkatuenak gobernatzea ahalbidetu zuten.

Ardura handia egokitu zitzaigun eta gure onenarekin erantzun diogu.

Azken lau urteak ez dira batere errazak izan, baina bidea eginez ikasten dela erakutsi dugu gure buruari eta gure herriari.

Erabaki estrategikoak hartu ditugu agintaldian zehar, eta horrek gauzatzeko oinarri sendoa jarri dugu, egiteko moduari garrantzia emanez: ELKARREKIN / LANKIDETZAZ / GARDENTASUNAZ.

Gaur udalerrri kohesionatuagoa gara, lubakien logikatik haratago ikusi eta sentitzeko gai dena; akordio zabalen bitartez aurrera egin duena.

Eskerrak eman dizuet bidelagun izan ditugun guztiei:

Auzo Udaleko, Arantza eta junta-kideei.

EAJko Iñigo, Miren eta Eneritzi.

Debarren Ahotseko, Pedro, Ane, Isidor eta Enriqueri.

Bidea egiten erakutsi diguten udal langileei.

Herri eragile eta pertsona konprometituei, ametsak errealitate bihurtzeagatik.

Eta batez ere, une zailtan erortzen utzi ez gaituzuen horiei, maite gaituzten horiei. Aipamen berezia, Nerea Arrizabalaga, Antxon Etxeberria, Antxoka Elorza, Artiz Larrañaga eta Itziar Irizarri.

Gaur, ordea, gure herriaren etorkizunari mugarririk bat jartzera etorri gara hona. Herritarrek EH Bildu, beste behin, lehen indarra izatea erabaki dute; alderdi politikoaren erabakiak, ordea, ez

La mesa de edad comprueba las credenciales emitidas por la Junta Electoral de Zona de Azpeitia, así como la declaración de bienes e intereses y de incompatibilidades presentada por los y las electas.

A continuación, los y las electas prestan el juramento o la promesa legalmente establecida para la toma de posesión del cargo, precisando, todos y todas, que lo prestan por imperativo legal.

Cumplidos los trámites establecidos, la mesa de edad declara por constituida la Corporación para el mandato 2023-2027.

2.- ELECCIÓN DEL ALCALDE O LA ALCALDESA.

Los tres concejales que encabezan las correspondientes listas toman la palabra, empezando por el que ha obtenido más votos populares.



2023SPLE0008

8.bilera: EZOHIOA 2023/06/17

dute zerrenda bozkatuenak gobernatzea ahalbidetuko.

Oraingo honetan ere, sekula ardura egokitu zaigu: Udalbatzako lehen taldea gara, talde prestuena dugu, eta azken urtetako esperientzia gure buru eta eskuetan da. Arduraz jokatu dugula hitz ematen dizuet.

Aipatutakoak kontuan izanik, Debako EH Bilduren udal taldeak gure hautagaitza aurkeztuko dugu udalerrri hau elkarrekin gidatzeko hautua berretsiz.

Hortaz, gobernuan aritu garen bezalaxe, gure udalerriko etorkizuna marrazten jarraituko dugu herritarrekin ea eragileekin elkarlanean, egokituko zaigun postu berritik, baina, orain arteko ilusioz, indarrez, eta bokazioz.

Lanerako aurkeztu ginen, lanean aritu gara eta lanean jarraituko dugu!

Abante Deba.»

Alazne Txurruka:

«Egun on guztioi,

Azken asteetan behin eta berriz errepikatu dut Debak norabide aldaketa behar duela, eta EAJ-PNV aldaketa horren bermea dela. Botoa eskatu aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuet maiatzaren 28an aurrera pauso bat eman zenuten debar guztiei, aldaketaren hautua egin zenuten guztiei. Herriak hitz egin zuen, beste Deba baten aldeko apustua egin zuen.

Deba debarrok bizitzeko herririk onena izatea dut helburu. Herri bizia merezi dugu, merkataritza eta ostalaritza indartsuarekin, berdintasunean eraikia, irisgarria, familia eta adineko pertsonengan fokoa jartzen duena, jasangarritasunaren bidean etengabeko pausuak ematen dituena, enpresa sare indartsua duena, lanpostuak sortzen dituena, gazteei lekua egiten diena, etxebizitza aukerak eskaintzen dituena, gure kultura zabaltzeko espazioak dituena, garraio publiko eraginkorra duena, euskalduna eta turismoari irekia.

Ez da nolanhiko erronka. Baina hori egikaritzeko berme bakarra EAJ-PNV da.

Gure hitza duzue, lehen egunetik egingo dugu lan, Debari merezi duen etorkizuna emateko. Debak aurrera egiteko. Eta hori hala izan dadin botoa eskatzen dizuet.

Eskerrik asko.»

Isidro Aristi:

«Egun on denori.

Deba Udaleko zinegotzi karguaz jabetzeko ekitaldi hau aprobetxatu nahi dut argitzeko, berriro ere, ordezkatzeko dudak herri plataformaren izenean, ORAIN DEBA talde politiko independente eta autonomia garelako erabakiak hartzeko. Debako auzotar aurrerakoiek osatzen duten tokiko plataforma bat gara eta udal hauteskundeetara aurkeztu garelako helburu bakarrarekin: hemen bizi garen guztiontzat herri hobea lortzeko lan egitea, beste inolako konpromiso edo loturarik gabe beste edozein erakunde politikorekin.

Deban udal hauteskundeetan emaitzak oso parekatuak izan dira herriko bi alderdi hegemonikoen artean, BILDUREN eta EAJREN arteko abantaila txikia izan udalerrian, eta Debako hirigunean, ordea, EAJREN abantaila izan da. ORAIN DEBAK zinegotzi bat lortu du.

Tras analizar los resultados, nos hemos reunido en varias ocasiones con los dos partidos políticos mayoritarios. En esos encuentros, nuestra formación no ha apreciado en las conversaciones con el último gobierno de BILDU, ninguna voluntad de abrirse a la colaboración adaptando su estilo de gobernanza aunque sea mínimamente a nuestras sugerencias; sin embargo, sí que hemos constatado que con la segunda fuerza política, el PNV, hay más flexibilidad hacia nuestros planteamientos y desde el principio se han mostrado receptivos a abordar una forma de gobernanza más colaborativa y conjunta.

Así, hoy vemos que nuestra participación con el PNV puede convertirse en una oportunidad en la que ORAIN DEBA pueda aportar sus propuestas en proyectos concretos de mejora para el pueblo. Y en ese sentido, hemos alcanzado unos mínimos acuerdos de gobierno municipal.

Estos acuerdos de gobierno, que se harán públicos, se basan fundamentalmente en cubrir las necesidades de vivienda social de alquiler en Deba, y en mejorar la atención a las personas mayores en el municipio más envejecido de Gipuzkoa, implementando para ello en el pueblo de Deba las infraestructuras dotacionales necesarias para ello. En estos acuerdos ÓRAIN DEBA ha puesto en el centro la necesaria mejora de los servicios públicos municipales.

Azken batean, lanean hasten gara gure udalerraren egungo egoera dinamizatzeko eta merezi duen bultzada emateko Gipuzkoako lurraldean dakion lekuen egoteko.

Quiero subrayar que desde ORAIN DEBA estaremos desde hoy mismo alerta para que en todo momento se cumplan los compromisos que hoy se adquieren a cambio de nuestra confianza; y, de no ser así, actuaremos en consecuencia y se lo haremos saber a toda la ciudadanía de Deba.

Eskerrik asko.»

Hitzaldien ondoren alkatea aukeratzeko bozketari ekin zitzaion, bi direla hautagaiak: Gilen Garcia Boyra, EH Bilduren zerrendaburuak; eta Alazne Txurruka Allika, EAJ-PNVren zerrendaburua.

Botoen kontaketa egin ondoren, hau izan zen emaitza:

Gilen Garcia Boyra, sei (6) boto.

Alazne Txurruka Allika, zazpi (7) boto.

Horiek horrela, Alazne Txurruka Allikak zinegotzien botoen gehiengo osoa lortu duenez, Debako alkate izendatzen da.

Ondoren, alkate berriak hitza hartzen du:

«Debar agurgarriak,

Gaur egun handia da niretzat, emozioz betetako eguna. Zintzotasun osoz eta umiltasunez hitz egin nahi dizuet alkate berri gisa.

Esker hitzekin hasi nahi dut. Eskerrik asko Debako alkate izateko aukera emateagatik, EAJ-PNVn jarritako konfiantzagatik. Eskerrak eman nahi dizkiet maiatzaren 28an ausart bozkatu zuten debar guztiei, aldaketaren alde egiteagatik, beraien erabakiarekin erronkari eustegatik. Eskerrak eman nahi dizkiot Orain Debari, akordiora iristeko emandako pausu guztiengatik, eta alkatetza ahalbidetzeagatik. Bi alderdien arteko helburua argia izan da hasieratik, Debaren

Tras las intervenciones se procedió a la votación para la elección del alcalde o de la alcaldesa, siendo dos las candidaturas: Gilen Garcia Boyra, cabeza de lista de EH Bildu, y Alazne Txurruka Allika, cabeza de lista de EAJ-PNV.

Tras el recuento de votos, el resultado fue el siguiente:

Gilen Garcia Boyra, seis (6) votos.

Alazne Txurruka Allika, siete (7) votos.

En consecuencia, habiendo obtenido Alazne Txurruka Allika la mayoría absoluta de los votos de los y las concejales, es proclamada alcaldesa de Deba.

A continuación, toma la palabra la nueva alcaldesa:



2023SPLE0008

8.bilera: EZOHIOA 2023/06/17

alde lan egitea. Programa sendoa adostu dugu, konpromisoz betea, eta erantzukizunarekin egingo diogu aurre, dugun akordioak ematen duen lanerako bermearekin. Elkarrekin eraikiko dugu debarrok merezi dugun herria. Eta azkenik; eskerrak eman nahi dizkizuet bereziki zuei, taldeko zinegotzi bakoitzari, erakutsi duzuen konpromisoagatik, erantzukizunez Debaren alde pausuak emateko nahiagatik. Lau urte hauetan bidelagun izango gara, eta gogor egingo dugu lan, zalantzarik ez dut.

Era berean, zorionak eta eskerrik asko gaur hemen zinegotzi kargua hartu duzuen guztioi. Datozen lau urteetako erronkari heldu diozue guztiok, Debaren alde lanean jarduteko konpromisoa eta ardura hartu duzue. Gutako bakoitzak debarrek ordezkatzeko eta zerbitzatzeko konpromiso irmoa dugu eta ziur naiz gure onena ematen saiatuko garela.

Gaurtik aurrera eraikiko dugun Deba, hein handi batean, datozen lau urtetako lanaren ondorena izango da. Debarron ongizatea izan dugu beti jomuga, konpromisoari heldu diogu, norabidea aldatzeko momentua iritsi da. Nire hitza duzue, gure hitza duzue: gure herriak aurretik dituen erronka berrien aurrean onena emango dugu.

Alkate berria naizen aldetik, hemendik aurrera emango ditugun pausuak hiru zutabetan oinarrituta izango direla esan nahi dizuet.

Batetik, debarron ongizatea bermatuko duten politikak izango ditugu oinarri. Debarrek erdigunean jarritz, zuon ongizatea izango da nire kudeaketaren helburu nagusia. Konpromisoa hartzen dut lan egiteko, zuetako bakoitzak kalitatezko zerbitzuak eskura izan ditzan, bizitza eta etorkizuna Deban errotzeko aukera izan dezan, inor atzean utzi gabe. Gizarte inklusiboa eta berdinzaleagoa sustatzeko konpromisoa hartzen dut, herritar guztiak aintzat hartuak eta errespetatuak senti daitezen. Nire hitza duzue.

Bestetik, herriaren garapena bultzatuko dugu, eta iraunkorra eta jasangarria izango da, Agenda 2030 ardatz hartuta. Herriko ostalaritza eta merkataritza indartzeko pausuak emango ditugu, turismoa sustatuko dugu, Itziarko industria guneari merezi duen lekua eman. Gure ingurune naturala zaintzea eta babestea sustatuko duten politikak eta proiektuak eramango ditugu aurrera. Energia berriztagarrien erabilera bultzatuko dugu, mugikortasun iraunkorraren alde egingo dugu eta baliabide naturalen kudeaketa arduratsua egingo dugu.

Eta azkenik, azpimarratu nahi dut bidea elkarrekin egingo dugula, herritarrekin batera. Debarren partehartze eraginkorra sustatuko dugu, erabakiak elkarrekin hartuz. Herriko eragile ezberdinekin lankidetzan estuan lan egingo dugu, beharrak identifikatzeko eta irtenbide eraginkorrak aurkitzeko. Komunikazio-kanal ireki eta gardenak ezarriko ditugu, guztiok beren iritziak emateko aukera izan dezaten, - erabakiak elkarrekin har ditzagun. Zuetako bakoitza Debaren etorkizunaren eraikuntzan parte aktibo sentitzea nahi dut.

Gogoia eta ilusioa -dut, etorkizunera begira ditugun erronkei heltzeko prest naiz. Badakit elkarrekin egingo diegula aurre. Konfiantza dut debarron komunitate senan. Eskutik lan eginez, edozein oztopo gainditu eta udalerrri oparoa eraikiko dugu, justua eta guztiontzako aukeraz betea. Deba bizitzeko herririk onena izatea dugu guztiok helburu.

Azkenik, zuekin, nire herrikideekin, dudan konpromisoa berretsi nahi dut. Zuengandik gertu nagoela jakitea nahi dut, zuentzako lan egiteko prest, Debaren mesedetan jarduteko gogoz. Bidaia honetan nirekin bat egitera animatu nahi zaituztet, zuen ideiak eta kezak partekatuz.

Decía que tengo ganas e ilusión, estoy dispuesta a abordar los retos que tiene Deba de cara al futuro. Sé que los afrontaremos juntas y juntos. Confío en la comunidad debarra. Trabajaremos de la mano, superaremos cualquier obstáculo y construiremos un municipio próspero, justo y lleno de oportunidades para todas y todos. Queremos que Deba sea el mejor municipio para vivir. Gracias a todas y todos por la oportunidad, por la confianza depositada.

Eskerrik asko guztioi zuen konfiantzagatik, herri honen alkate izateko aukera eskaintzeagatik.

Gora Deba!»

Beste gairik ezdagoenez, 12:25ean amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar, a las 12:25 horas, finaliza el Pleno.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria